

<i>Esped.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2010	P3/2011	2011/11/04	Zergapekoa	Gipuzkoako Foru Aldundia/Estatuko Administrazioa	Inportazioen BEZa itzultzea

Ebazpena: P3/2011

Espedientea: 16/2010

Gasteizen, 2011ko azaroaren 4an,

Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada presidentek eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak, honako

ERABAKIA

hartu du (1. ENTITATEA), S.L. entitateak, IFZ: B ----, gero aipatuko diren idazkien bitartez aurkeztutako uziak gatazka gisa izapidetzeko onartzeari buruz. Idatzi horiei 16/2010 espediente zenbakia esleitu zitzaien.

I.- AURREKARIAK

1. 2010eko maiatzaren 21ean Arbitraje Batzorde honetan idazki bat sartu zen, hilaren 20ko data zuena eta (1 ordezkaria)k sinatua (1. ENTITATEA), S.L., IFZ. B ----, (aurrerantzean “entitatea”) entitatearen ordezkarietan, baina ordezkarietza justifikatu gabe. Baieztapen honekin hasten da idazki hori: “Gatazkak ebazteko idazkia aurkezten dugu”. Jarraian, “gatazkaren planteamendua” izenburupean, entitatearen egoitza fiskala eta IFZ adierazten dira. Ondoren, “gatazkaren datuak” izenburupean, honakoa adierazten da:

“2007ko ekitaldiko eta 2008ko azaroko eta abenduko BEZa itzultzeko eskaera

2006ko BEZa: s.sss,ss € konpentsatzeko

2007ko BEZa: ss.sss,ss € itzultzeko

2008ko azaroko BEZa: s.sss,ss € itzultzeko

<i>Esped.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2010	P3/2011	2011/11/04	Zergapekoa	Gipuzkoako Foru Aldundia/Estatuko Administrazioa	Inportazioen BEZa itzultzea

2008ko abendukoa: sss,ss € itzultzeko

2007ko ekitaldiko abenduko BEZa aurkezten dugu, ss.sss,ss € itzultzekoa (0 Dok.).”

Idazkiari erantsitako 0 Dokumentua, Zerga Agentziaren Bizkaiko Ordezkaritzan 2007ko ekitaldiko BEZari buruz aurkeztutako urteko aitorten laburtzailearen (392 eredua) kopia da. Dokumentu horretan ikusten da ekitaldi horri dagokion konpentsatzeko edo itzultzeko kopuruen batura ss.sss,ss eurokoa dela (ss.sss,ss euro ekitaldi horretakoak eta 2006ko ekitaldiko s.sss,ss euro, konpentsatzekoak).

Idazkiak “aurrekariak” azaltzen ditu ondoren, horien artean, jarraian laburtzen direnak:

- Entitatea 2005ean eratu zen, eta txatarraren eta material ez-ferrikoen handizkako salmenta du jarduera. Eransten du jarduera hori “BEZean salbuetsita dagoela eta, beraz, nahitaezkoa dela BEZa itzultzea eskatzea”.
- 2008ko irailaren 18an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak erabaki bat eman zuen, 2007ko BEZa itzultzea ezetsiz, entitatea ez zelako Gipuzkoako Lurralde Historikoko subjektu pasiboa (idazkiarekin batera aurkeztutako 1. Dokumentuan eransten da kopia).
- 2008ko irailaren 30ean, Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzu horrek erabaki bat hartu zuen entitatearen IFZ errebokatzeke espedienteari hasiera emateko, hamar egun balioduneko epea emanez entitateari alegazioak eta frogak aurkez zitzan (idazkiari erantsita dago kopia 2. Dokumentuan).
- “2008ko azaroaren 25ean, Gipuzkoako Foru Ogasunak BAIETSI EGIN ZUEN AURKEZTU GENUEN ERREKURTSOA, ETA ONDORIORIK GABE UTZI ZUEN EGINDAKO LIKIDAZIOA. IFZren errebokazio espedienteari dagokionez.” Aurreko hori idazkiko paragrafo baten transkripzioa da. Eta 4.

<i>Esped.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2010	P3/2011	2011/11/04	Zergapekoa	Gipuzkoako Foru Aldundia/Estatuko Administrazioa	Inportazioen BEZa itzultzea

Dokumentuan eranstean da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak emandako ebazpen baten fotokopia ez osoa. Ebazpen horrek berraztertze errekurtsio bat baiesten du eta ondorioz gabe uzten du egindako likidazioa. Ebazpen berean, deuseztatutako ebazpenaren izaera zehatzailea ere aipatzen da. Hala ere, hori ez da identifikatzen aipatutako fotokopia horretan.

- Entitateak esaten du azaroaren 17an (urtea zehaztu gabe) Estatu Agentzian aurkeztu zituela jaulkitako fakturen liburuak, hartutako fakturenak, eta eragiketa salbuetsien Erregistro liburua, berreskuratze materialei zegokienez.

Eta eranstean du: “Era berean, dokumentuan aurkezten ditugu, hiru kontainer altzairu herdoilgaitzezko txatar inportatzeagatik aduanan egindako ordainketak. (5. Dok.an aurkezten ditugu hornitzaile horien fakturak)”. 5. Dokumentu hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (ZAEA) Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziari zuzendutako idazki baten kopia da. 2009ko azaroaren 17an Donostian datatutako idazki horretan, Posta Zerbitzuaren data zigilu bat ageri da, 2009ko azaroaren 20koa, baina ez dago ZAEAREN Ordezkaritza Bereziari harrera datarik.

Idazkian azaltzen da aipatutako erregistro liburuak eta aduanako garraio bitartekarien fakturen fotokopia bidaltzen direla: bi (1. garraio kudeatzailea)renak eta bat (2. garraio kudeatzailea)rena, eta faktura horietan honako kopuruak jasotzen direla BEZean salbuetsi gisa: ss.sss,ss EUR, s.sss,ss EUR eta s.sss,ss EUR. Lehenengo bi fakturak sartu dira 5. Dokumentuan, baina ez hirugarrena (2. garraio kudeatzailea)rena. Hiru fakturak batuta, ss.sss,ss EUR ateratzen dira, eta hori da 2007ko ekitaldiko urteko aitorten laburtzailean (392 eredu) ondasun korronteen inportazioetan deduzitzeko kuota gisa aitortutako kopurua.

<i>Esped.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2010	P3/2011	2011/11/04	Zergapekoa	Gipuzkoako Foru Aldundia/Estatuko Administrazioa	Inportazioen BEZa itzultzea

- Idazkian adierazten da “2008ko ekitaldiari dagokionez, azaroan eta abenduan jaulkitako eta hartutako fakturak aurkeztu” zirela. Ez dira eransten, ez aipatutako fakturak eta ez ekitaldi horri dagozkion BEZ aitorpenak.
- Azkenik, idazkian alegatzen da:

“Bi administrazioetako batek ere –ez Estatuko Zerga Agentziak eta ez Gipuzkoako Foru Aldundiak– ez du iritzi itzultzeko eskatutako kopuruak ordaintzea zuzena ez denik.

Iritzi duten bakarra izan da, ez bata eta ez bestea, ez direla eskudun kopuru hori itzultzeko, eta, beraz, ARBITRAJE BATZORDEARI ESKATZEN ZAIO ERABAKI DEZALA BIETATIK ZEIN DEN ESKUDUNA ITZULKETA HORI EGITEKO, berriro diogulako kopuru horiek ordainduak izan direla eta ADMINISTRAZIOREN BATEK jaso dituela.

2. 2010eko urriaren 13an, entitatearen bigarren idazki bat sartu zen Arbitraje Batzordean, 2010eko urriaren 6an datatua, eta bertan azaltzen denez “altzairu herdoilgaitzezko txatarra inportatu zuen (1. inportatzailea)ren bidez (Fakturen fotokopiak eransten ditugu)”. Hala ere, fotokopia horiek ez daude espedientean jasota.

Aurrerago, “2008ko EKITALDIA” izenburupean, honela dio idazkiak:

“(2. inportatzailea)ren bidez (IFK ----) inportatutako txatarraren BEZa ordaindu da: xxx1 faktura, uuuu/hh/ee datakoa, s.sss,ss €-ko BEZa dagokiona, eta xxx2 faktura, uuuu/hh/ee egunekoa, s.sss,ss €-ko BEZa dagokiona. Fakturen kopiak eransten ditugu”.

Faktura horiek ere ez daude espedientean jasota.

Jarraian transkribatzen den testuarekin amaitzen da idazkia:

“EBAZPENA

<i>Esped.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2010	P3/2011	2011/11/04	Zergapekoa	Gipuzkoako Foru Aldundia/Estatuko Administrazioa	Inportazioen BEZa itzultzea

ESTATU BARNEKO ERREGULARIZAZIOA

EKONOMIA ITUNAREN oraingo egoera kontuan izanda, EZ dute ESKUMENIK BEZaren eta SOZIJETATE ZERGAREN aitorpenak onartzeko, ERABAKIAK HARTZEKO zentroa Errusian dagoelako, eta ez Gipuzkoan.

BERAZ, ARBITRAJE BATZORDE HONEN AURREAN 2010eko MAIATZAREN 20an AURKEZTUTAKO AURREKO IDAZKIAN EGIN ZEN BEZALA, ESKATZEN DUGU EZAGUTARAZ DIEZAGUTELA FISKALKI NON KOKATU BEHAR DUGUN, ETA HALABER SOZIJETATE ZERGAREN TRIBUTAZIOA, BEZarena, BATASUN BARRUKO OPERADOREEN ERREGISTROA. ERA BEREAN, BERRIRO ESKATZEN DUGU, TXATARRAREN ADUANA IZAPIDEENGATIK ORDAINDUTAKO ss.sss,ss € ITZULTZEA”.

Aipatutako idazkiari beste hamar ebazpen berdin eransten zaizkio, ZAEaren Gipuzkoako Ordezkaritzako Zerga Kudeaketako Departamentuak emanak. Ebazpen horiek amaiera ematen diote, 2008ko ekitaldiko lehenengo hamar hilabetei dagokien BEZaren autolikidazioa (332 eredu) ez aurkezteagatik irekitako zehapen prozedurari; entitatearen alegazioa onartzen dute, hau da, “errore baten ondorioz, aitorpena Zerga Agentzian aurkeztu zela, Administrazio eskuduna Gipuzkoako Foru Aldundia zenean”, eta, ondorioz, ebazten dute ez direla betetzen zerga arloko arau hausteren bat izan dela erabakitze baldintzak.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Eskumenei buruzko gatazka bat izapidetzeko onartzeko, begi-bistakoa denez, nahitaezkoa da gatazka bat egotea, hau da, Administrazioen arteko adostasunik eza ordenamendu juridikoan ezarritako moduan formalizatuta egotea. Arbitraje Batzorde honek ebatzi beharreko gatazkei dagokienez, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak (1760/2007 Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, onartuak) 13. artikuluan arautzen du gatazkak hasteko prozedura eta gatazkak onartzeko eskakizunak ezartzen ditu. Artikulu horrek 1. apartatuan xedatzen duenez “baldin eta

<i>Esped.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2010	P3/2011	2011/11/04	Zergapekoa	Gipuzkoako Foru Aldundia/Estatuko Administrazioa	Inportazioen BEZa itzultzea

ezein administrazioek ez badu bere burua eskuduntzat jotzen, eskugabetasuneko aitortpena gertatu izana beharko da, administrazio batetik bestearen aldekoa, eta, aldi berean, haren erabakia, inhibitzeari buruzkoa”.

Bestalde, Erregelamendu bereko 9. artikulua ezartzen duenez “prozedura honela hasten da: Estatuko Administrazioak, foru-aldundiek, autonomia erkidego batek edo Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak gatazkaren edo desadostasunen bat Arbitraje Batzordean aurkezten duenean”. Manu horretatik ondorioztatzen da partikularrek ezin dutela gatazkarik planteatu, eta Arbitraje Batzordeak ere ezin duela egin ofizioz. Hori berretsi du Auzitegi Gorenak, Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. Atalak, 2011ko otsailaren 3an, 266/2009 zenbakiko errekurtsioan emandako epaiaren bidez. Partikularren legitimaziorik ezari dagokionez, aipatutako epaiak, 2006ko abenduaren 12koak 5031/2001 zk.ko errekurtsioan ezarritako doktrina berresten du. Aipatutako epai horietako lehenengoan, Auzitegi Gorenak dio Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 16. artikuluko 4. apartatuak partikularrei alegazioak aurkezteko aitortzen dien ahalmenaren auresuposizioa dela gatazka behar bezala planteatuta egotea horretarako legitimazioa dutenen aldetik.

Erregelamendu bereko 13. artikuluko 3. apartatuak aurreikusten du bi Administrazioek eskumenik ez dutela deklaratu arren, bietako batek ere Arbitraje Batzordearen aurrean gatazkarik abiarazten ez dueneko kasua. Kasu horretan, planteamendua egiteko epea igarotakoan, hau da Administrazio bat beste baten alde eskumengabe deklaratu ondoren, bigarren Administrazio hori inhibitzen denetik hilabete igarotakoan, “aski izango da zergadunak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin”. Gatazka automatikoki planteatzeko mekanismo hori martxan jartzeko ahalmena egikaritzeko, begi-bistakoa da nahitaezkoa dela bi Administrazioak inhibituta izana.

2. Aurreko apartatuan aipatutako manuak eta doktrina ikusita, argi dago entitateak Arbitraje Batzordeari aurkeztu dizkion bi idazkiek, forma aldetik dituzten hutsune

<i>Esped.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2010	P3/2011	2011/11/04	Zergapekoa	Gipuzkoako Foru Aldundia/Estatuko Administrazioa	Inportazioen BEZa itzultzea

nabarmenak alde batera utzita ere, ez dutela efikaziarik gatazka planteatu ahal izateko.

Bi idazki horietako lehenengoan, 2010eko maiatzaren 20koan, alegatzen da eta justifikatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskumena onartu ez izana 2007ko ekitaldiari dagokion BEZa itzultzeko. Baina ez da justifikatzen Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eskumena errefusatu duenik, eta baldintza hori nahitaezkoa da entitateak egikaritu ahal izan dezan Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak 13. artikuluko 3. apartatutan aitortzen dion ahalmena, hori izanik bide bakarra Arbitraje Batzorde honen aurrean ustezko gatazka gorpuzteko.

Bigarren idazkiari, 2010eko urriaren 6an 2008ko ekitaldiko BEZaren itzulketari (eta Sozietate Zergaren gaineko eskumenari) buruz aurkeztutakoari, dagokionez, Batzorde honek onartzea nahi den gatazkaren planteamenduan, eskaera formulatzeko termino bitxi horiekin, ez du inolako alegazio eta frogarik eskaintzen gatazka onartzeko nahitaezkoak diren eskakizunak betetzen direla erakusteko.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

Izapidetzeko ez onartzea (1. ENTITATEA), S.L., IFZ. B ----, entitateak aurkeztutako uziak.